



Duela hogeita hiru urte Eusko Jaurlaritzak sortu zuen *Bidegileak* bilduma euskalgintzan aitzindari izan diren pertsonak eta taldeak ezagutarazteko eta omentzeko. Harrez geroztik, urtez urte, biografia berriekin aberastuz eta osatuz joan da bilduma. Dagoeneko kaleratutako 64 sortetan 256 bidegilearen bitzita, obra eta pentsamenduari buruzko dibulgazio-lanak idatzi eta argitaratu dira bilduman.


## BIDEGILEAK



Juan Martin Hiribarren  
(1810-1866)



Agosti Xaho  
(1811-1858)



Bruno Etxenike Garmendia  
(1819-1893)




Joseba Altuna Amilgain  
(1887-1971)



Luis Bandres Unanue  
(1944-2009)



Xabier Lete Bergaretxe  
(1944-2010)



Mario Onaindia Natxiondo  
(1948-2003)



Joxe Migel Bidador Gonzalez  
(1970-2010)



Antonio Tovar Llorente  
(1911-1985)




Juri Zytsar  
(1928-2009)



Rudolf P. G. de Rijk  
(1937-2003)



Robert L. Trask  
(1944-2004)



### Juan Martin Hiribarren (1810-1866)

Apaiza. Idazlea. Bere lanetan *Eskaldunak* poema luzea nabarmentzen da, 7-6 silabako neurrian idatzitako 5.000 lerro inguru, Euskal Herriaren agerpen osoa izan nahi duena: historia, geografia, ohiturak... Hainbat lan utzi zuen argitara gabe, eta, batez ere, euskal hiztegi bat. Xipri Arbelbidek paratutakoa.

### Agosti Xaho (1811-1858)

Euskal kazetari, idazle, hizkuntzalari eta politikaria izan zen. Haren pentsamoldea ezkerreko euskal nazionalismo baten lehen aurrekarizat hartu izan da. Erromantiko sutsua, euskaldunen jatorriaren eta historiaren inguruko hainbat kontakizunen asmatzaile izan zen, hala nola *Aitorren kondaira*. Xabier Zabaltzak paratutakoa.

### Bruno Etxenike Garmendia (1819-1893)

Idazle eta itultzailea. Luis Luziano Bonaparterekin egin zuen lan 1857. urteaz geroztik, eta haren aginduz *San Mateoren Ebanjelioa*, *Apokalipsia* eta *Kantarik Ederrena* itzuli zituen Baztango euskalkira, besteak beste. Nafarroako Euskarazko Elkargoko ohorezko bazkidea. Rosa Miren Pagolak paratutakoa.

### Joseba Altuna Amilgain (1887-1971)

Euskaldun berria. Sustatzaile, euskara irakasle, ekintzailea. Amilgain eta Azparren izengoitia erabili zituen. Idazle, kritikari eta itultzaile oparoa izan zen. Besteak beste, Esopo, Wilde, Sota, Suit, Afanisieva eta Grimm anaien zenbait obra euskaratu zituen. Ander Altunak paratutakoa.



### Luis Bandres Unanue (1944-2009)

Euskaldun berria. Unibertsitateko irakasle, politikari, euskararen eragilea. EHUKo udako ikastaroen, Bergarako UNEDen eta Industria Ingeniaritza Teknikoaren Eskolako zuzendaria. Elhuyar taldearen sortzaileetakoak. UEUren zientzia-alorreko sailen bultzatzailea. EJKo Kultura eta Turismoako sailburua. Arantzazu Muñoak paratutakoa.

### Xabier Lete Bergaretxe (1944-2010)


Poeta, musikagile, abeslari, antzerkilari, politikoa. Ez Dok Amairu taldeko kidea. Bere poema eta abestietako asko jendearen bihotzetara iritsi dira. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saileko zuzendari eta sail bereko diputatua izan zen. Ohorezko euskaltzaina. Inazio Mujikak paratutakoa.

### Mario Onaindia Natxiondo (1948-2003)

Politikari eta idazlea. Autonomia Estatutuaren aldeko ezkerreko alderdiak bildu zituen garai desberdinetan, abertzaleak eta autonomistak, sozialistak eta komunistak bateratuz. Marxen zenbait obra euskaratu zuen. Sei eleberri eta ipuin liburu bat argitaratu zituen euskaraz. Manu Gojenolak paratutakoa.

### Joxe Migel Bidador Gonzalez (1970-2010)

Euskaldun berria. Bigarren Hezkuntzako irakaslea. Dantzari buruzko lan ugari kaleratu zituen. Ahaztuta zeuden Nafarroako euskal idazleen gaineko ikerketa lana plazaratu zuen. Euskal Idazleen Elkarte kidea eta idazkaria. Olerkiak eta narrazio laburra jorratu zituen. Roldán Jimenok paratutakoa.



### Antonio Tovar Llorente (1911-1985)

Hizkuntzalari klasikoa izateaz gain, Europako hizkuntza erro-maniko eta indoeuroparretan, Iberiar Penintsulako hizkuntza zaharretan eta Hego Ameriketako hizkuntza indigenetan ere aditua zen. Salamancako Unibertsitateko Latin katedraduna eta errektorea. Euskaltzain urgazle eta ohorezkoa. Joakin Gorrotxategik paratutakoa.

### Yuri Zytzar (1928-2009)

Hizkuntzalari eta irakaslea. Errusiako euskalaritzan aitzindaria. Euskalaritza eskola txiki baten sortzailea. Koldo Mitxelenarekin gutun bidezko harreman luze eta emankorra izan zuen. *Euskera* eta *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarietan kaleratu zituen artikuluak. Ohorezko euskaltzaina. Natalia Zaikak paratutakoa.

### Rudolf P. G. de Rijk (1937-2003)

Unibertsitateko irakaslea. Hizkuntzalaria, euskal gramatika aditua. Euskal morfologia, sintaxi eta gramatikari egin zizkion ekarpenak funtsezko mugarriak izan dira, bai eta euskararen filologia eta diakroniaren arloan egindako lanak ere. Euskaltzain urgazle eta ohorezkoa. Patxi Goenagak paratutakoa.

### Robert L. Trask (1944-2004)

Atzerriko euskalaritzak urteetan eman duen ikertzailearik bikainena. Puntako hizkuntzalari orokorra zen. Hizkuntzaren egitura eta historiaren inguruko lan sakon ugari egindakoa. *The history of Basque* da euskararen iragana ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia. Ohorezko euskaltzaina. Iván Igartuak paratutakoa.